

HISTORIA. Aurreiritzi franko hautsi ditu egileak, 430 orrialdetan

Frantziako Iraultzak euskal gizartean ukan oihartzunak bildu ditu Goienetxek

Historialaria idazten ari den Euskal Herriaren historiaren 4. liburukia da

Nora Arbelbide | BAIONA

Frantziako Iraultzari lotu da Manex Goienetxe historialaria Elkarrek argitaratu dion liburuan. Betiere Euskal Herriko historia orokorraren sailean, laugarren liburuki honetan 1789tik 1799rako hamar urteak jorratzen ditu 430 orritan.

Orain arte egin duen bezala, hemen ere, ez du lan unibertsiario bat egin. Gizartea begiratu du bereziki. «Zuzen zer gertatu da? Nola? Zergatik?», galdera horiei erantzuten entseatu da Goienetxe.


Liburua lau zati nagusitan banatu du. 1789ko euskal gizartearen argazki bat eginez hasi, eta, 1792ko errepublikatik 1799ko estatu-kolpera eramaten du irakurlea. Erregetzaren erortzea eta departamenduen zatiketak piztu galderetatik pasatzen da, besteak beste. Horrez gain, Frantziako Iraultzaren eta Hego Euskal Herriaren arteko harremanari tarte berezi bat eskaini dio.

Hori guziarekin «irakurleak bere ikusmoldea lan dezala», zioen. Hark ez duela bere ikusmolderik jarri, gehitu zuen. Dena dela, Manex Goienetxeren lanak aurreiritzi franko hausten ditu.

Bi aldetako aizkora

«Bi aldetako aizkora» batekin konparatzen du garai hori. «Iraultza guziak bezala ez da dena zuri ala beltz», zioen.

Historialariak azpimarratu zuen nola, lehen fase batean Frantziako Iraultzak ekarri proposamenak itxaropena piztu zuen euskaldunen artean. «Aterabide bat zen haientzat. 1789ko gizarteak krisi ekonomiko sozial gotor bat jasaten zuen. Martxan ziren instituzioak zaharkituak zitzaizkien», azaldu zuen.



GAIZKA IROZ
Goienetxe historialaria, atzoko aurkezpenean.

MANEX GOIENETXE

Historialaria

«1790ean, Paristik departamenduaren ezetzarekin sartu ziren Garat anaiak, eta desilusia handia izan zen»

Instituzio berriak eraikitze orduan, zer eraiki behar ote? Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa, aho batez, hiru probintziak bilduko zituen departamendu baten alde agertu ziren. Gizakiaren eskubideen aldarrikapenaren alde ere agertu ziren euskaldunak.

Nahikari horrekin zen dibortzioa sortu. Hiru probintziek osatuko luketen departamendua ez zen onartua izan. «Desilusia handia eta zabala izan

zen 1790ean Garat anaiak Paristik departamenduaren ezetzarekin sartu zirelarik», zehaztu zuen. «Gaur egungo aktualitatearekin paralelorik egin gabe ezin da gelditu. Garaian bezala desilusia hor dago, eta garaian bezala, segitu behar».

1992tik Errekisazioa

1992an gerla hasi zen. Bigarren krisi bat du Euskal Herriak. «Ontasunak, mozkinak eta gizonak errekiatuak dira. Biziki pisua izan zen». Garai horretako aurreiritzi bat ere hausten du Goienetxek. Izan ere, armadak gerlan parte hartzeko boluntarioak deitzen zituen. «Nehorke ez zuen bere kabuz izenik eman Euskal Herrian, bizpahiruk ez ezik», egiaztatu ahal izan du dokumentuetan Goienetxek. Iheslari anitz izan zen, haatik, «muga baten ertzean aurkitzen diren eskualde guzietan bezala».

HISTORIA

‘Los Liberales. Fuerismo y Liberalismo en el Pais Vasco, 1808-1876’ liburua argitaratu dute



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS
J. Agirreazkuenaga.

Sancho el Sabio Elkartek *Los Liberales. Fuerismo y Liberalismo en el Pais Vasco, 1808-1876* liburua kale-ratu du Besaide sailaren barruan. Sail honetako hamargarren liburua da azken hori, eta EHUKo hainbat irakasle hartu dute parte bertan; Joseba Agirreazkuenaga, Mario Onaindia eta Javier Fernandez Sebastian, besteak beste. Lan hau bi zatitan banatua dago. Lehenengoa, liberalismoak, Fueroek eta Konstituzioak urteek aurrera egin

ahala izan zituzten aldaketak aipatzen dira. Bigarrenean, berriz, garapen horren nondik norakoak azaltzen dira. Testuekin batera garai hartako argazki eta grabatuak ere biltzen dira.

KOMIKIGINTZA

Angulemako jaialdian Korea omenduko dute

Angulemako Komiki jaialdiak 30 urte egingo ditu datorren urtean. Hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte, horien artean Hego Korean egiten den komikigintzaren azterketa. Horrez gain, datorren urtarilaren 23 eta 26a artean egingo den jaialdian Jen-Marc Reiser komikigilearen 150 irudi ere ikusi ahal izango dira. Horieta batzuk argitaragabeak. *Nazioarteko Topaketak* atalean, berriz, Jose Muñoz argentinarra izango da gonbidatueta bat.

MUSIKA

Baiba Skride biolin jotzailea EOSekin ariko da, gaur, Gasteizen

Baiba Skride biolin jotzailea Euskadiko orkestra Sinfonikoarekin izango da gaur bakarlari gisa, Gasteizko Printzipal antzokian. Bruselako Queen Elizabet saria irabazi zuen Skridek 2001. urtean, eta bera gonbidatua izango den kontzertua kontrastez beterik egongo da. Jesus Aranbarriri eskainiko diote kontzertua, bere jaioztatik mendea pasa delako. Aranbarririk Gortazarrentzat eginiko Elegia joko dute, besteak beste.

ZINEMA

Fernando Leon de Aranoaren ‘Los lunes al sol’ filmak zortzi izendapen ditu Goya sarietarako

Leon de Aranoaren *Los lunes al sol*, Pedro Almodovarren *Hable con ella*, Antonio Hernandezen *En la ciudad sin limites* eta Emilio Martinez Lazaroren *El otro lado de la cama* dira Espainiako zinemagintzako Goya sari nagusirako izendatutako filmak. Horrez gain, Aranoaren filmak beste zazpi izendapen ere jaso ditu; horien artean, aktore onenarena Javier Bardementzat eta zuzendari onenarena Aranoarentzat.

MUSIKA

Mary Hansen Sterolab taldeko gitarra jotzailea hil da, errepideko istripu batean

Mary Hansen Sterolab taldeko gitarra jotzaile eta abeslaria joan den astelehenean hil zen. Bizikletan zihoala istripu bat izan zuen, Londresen. Hansen Sterolab taldeko kidea zen 1992tik, Tim Gane eta Laetitia Sadierekin batera. Taldea azken hamarkadako esperimentalena eta eragin gehiena izan duena bezala kontsideratua dago.

IRAGARKI MERKEAK

943 300 222


70 x 33 mm
2 MODULO
(Iparraldea)

Egun: 30 €
Astea (6 egun): 24 €
2 aste (12 egun): 20 €
Hilabetea (24 egun): 16 €

33 x 33 mm

33 x 33
MODULO
(Araba-Nafarroa)

Eguna: 15 €
Astea (6 egun): 12 €
2 aste (12 egun): 10 €
Hilabetea: (24 egun): 8 €



**BIDEO KOPIAK
BIDEOGINTZA
LEHIZE EKOIZPENAK**

IRRATIRAKO KUÑAK ETA SOINUKETAK
Pagoaldea Pol. 48 z. 20180 OIARTZUN
tlf: 943491936 lehize@euskalnet.net